

Ipar, berrogeita hamar urteko konpromisoa Bilborekin

Alkateak eta komunikabide
ugarik gazte elkarte horren
mende erdiko jardueraren berri
eman dute.

2019 Abe 18

SER katea eta TeleBilbao dira aste
hauetan Ipar elkartearen 50.
urtebetetzeaz hitz egin duten
komunikabideetako batzuk.
Elkarteak mende erdiz bete du hiria

elkartasunez, kulturaz eta balioez. Yimby aretoan egindako gala batek eta familiekin egindako eukaristia ospakizun batek urteurrenaren ospakizuna egiteko balio izan zuten. Juan María Aburto Bilboko alkateak ere parte hartu nahi izan zuen gutun baten bidez.

“Zuen proiektua oso ondo dator denon artean eraiki nahi dugun Bilbo balioen hiri horretan. Balioetan oinarritutako hiria, hiri hobea da”, adierazi zuen alkateak.

Errejidoreak beste pertsona batzuen bizitza hobetzeko lanean jarraitzera animatu zituen gazte elkarteko arduradunak. “Nik Bilbo solidario bat nahi dut, guztiok errespetatuko gaituena, berdintasuna eta justizia soziala berregingo dituen, ahalegina eta lana baloratuko dituen, pertsonak beste pertsona batzuez eta gure inguruko munduaz

kezkatuko gaituena”, gehitu zuen alkateak.

Galan zehar, jarduera aipagarrienetako batzuk gogoratu ziren, hala nola pintura-lehiaketa tradizionala eta ekimen solidario anitzak: Bizkaiko Elikagaien Bankuaren bilketa-kanpainetan laguntzea, Bilboko zenbait auzotan etxerik gabeko pertsonen ogitartekoak banatzea, Iralabarriko jantoki sozialean boluntaritza egitea eta Jesusen Zerbitzarien gosari sozialetan parte hartzea, eta Gurutzetako ospitalean haurrak eta haien familiak laguntzea.

Azkenean, aspaldiko bazkide, monitore eta artistek horretarako egindako lanak enkantean jarri ziren, nolabait Ipar Elkartearekin lotura dutenak eta elkarteak haientzat suposatu duena adierazi nahi izan dutenak.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/ipar-berrogeita-hamar-
urteko-konpromisoa-bilborekin/](https://opusdei.org/eu-es/article/ipar-berrogeita-hamar-urteko-konpromisoa-bilborekin/) (2026
Mar 10)